

## ASTUAK ETA IRIYA



(NERE ADISKIDE ON JOSÉ MARÍA RAMOS-I DONKITUA)

Asto zar bat etzanta  
zegon chit eriya,  
miñakin sosegatu  
eziñian iya;  
beste asto bat ara  
beregana joanik,  
diyo:—Azkar miñ ori  
kenduko dizut nik;  
zuk sabel ortan dezu  
*boltsa* bat aundiya,  
nere iritziz zaude  
zu, aizez josiya;  
eta zulo chiki bat  
*zazt* egiñarekin,  
sendatua zeundeke  
gauza utsarekiñ.  
Ontzat arturik asto  
batak bestiena,  
diyo:—Egizu bada  
nai dezun diena.  
Orduan deiturilian  
an zan iriyari,  
diyo—Mesede bat prest  
egiñ zazu orri;  
zuk dauzkatzu adarrak

zorrotz eta fiñak,  
 zuk kenduko dizkatzu  
 azkar orri miñak;  
 sartu zayozu adar  
 punta bat tripatik,  
*boltsa* edo *chunbua*  
 daukarren tokitik;  
 beriala aiziak  
 kenduko dizkatzu,  
 artuko du poza ta  
 naikua deskantsu.  
 Esan bezela adar  
 punta ziyon sartu,  
 ¡bañan barrenan zañak  
 zizkan arrapatu;  
 eta odol ustutzen,  
 asirik batetan,  
 naiko sufriturikan  
 ill-zan anchen bertan!

. . . . .

Astua beti acto  
 munduan dan arte,  
 mesede egin nairik  
 egiñ oidu kalte;  
 astuaren esanaz  
 fiyatutzen danak  
 bereganatzen ditu  
 orrelako lanak.

JOSÉ ARTOLA.

